

ttipi ttapa

1000ko artetik 500.000. artetik

432



Elizena Berkaia
Zentroak ikurtu

04

Berkaia eta Berkaia-berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia



Berkaia Berkaia
Berkaia Berkaia

24

Berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia
berkaia berkaia berkaia berkaia



URRIAREN 21. EGUNA

1. EGUNA

Udazkeneko
azienda ferien
txanda dator



1945az geroztik

MAGNA


MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: baztan@maglur.org

babeslea:



BAZTANGO MAGNA BKT



ESKAINTZAK

% 20-30-40ko deskontu bereziak
erakusketako altzari eta osagarrietan



ORDOKI
altzariak

Larunbat goiz eta
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

ARTXIBOKOA

Bortzirietako Lan Munduko Eus-kara Batzordeak sindikatu ezber-dinak biltzen di-tu: argazkian, Ju-len Mitxeltoarena (LAB), Patxi Al-txu (UGT) eta Ma-nuel Agirre (ELA). Urko Ikar-do Euskara Man-komunitateko idazkariearekin.



LAN ETA BIZI EUSKARAZ ETA...

Lehiaketa-zozketa egingen da Bortzirietako lantegietan

Joan den urtean, Bortzirietako lantegietan euskararen erabilera bultzatzeko hiztegia karrikaratu zuen Lan Munduko Batzordeak. Euskaraz lan egiteko zailtasunak gainditzen hasteko, hainbat lantegitan euskaratu beharreko hitzen zerrendak bildu ziren, eta horiekin osatu zen aipatu hiztegia. Aurten, Bortzirietako lantegi nagusietan egingen den lehiaketa-zozketa batekin datoz, beti ere euskara laneko hizkuntza izateko bidean aurrerapausuak emateko helburuarekin.

ttipi-ttapa

Oraingo honetan ariketa bat pro-posatu nahi du Lan Munduko Eus-kara Batzordeak. Bortzirietako lantegi handi eta ertainetan, 2.000 orri ba-natu ditu horretarako, irudian ikusten

diren bezalakoak hain zuzen ere. Ai-tzineko aldean, Euskal Herriko bur-dinolei buruzko testu bat ageri da, eta bertan badira hainbat hutsune. Gibe-leko aldean, berriz, hutsune bakoit-zeko hiru hitz ematen dira, eta ho-rietako bakarra da zuzena, eta beraz,



aukeratu beharrekoa.

Lantegi bakoitzeko batzordea ar-duratu da lehiaketa orrien banaketaz. Erantzunak jasotzeko kutxa batzuk paratu dituzte propio. Lantegiko ba-tzordean ere jasoko dituzte. Horreta-rako azken eguna urriaren 26a iza-nen da. Erantzun zuzenen artean, bi lagunentzako afari bat zozketatuko da, Etxalarko Herriko Ostatuan egi-nen dena. Zozketa urriaren 31n egi-nen da Arantzako Herriko Etxean, eta irabazlea nor izan den behar bezala iragarriko da.

Lan Munduko Batzordeak lehia-keta honetan parte hartzeko gonbi-ta egin nahi die Bortzirietako langile-ei. Horrez gain, euskara laneko hiz-kuntza izan dadin hau bezalako sen-tsibilizazio ekimenak egingen segituko du aurrerantzean ere.

Ekimen berria

Lan Munduko Batzordea Bortzi-rietako lantegietan euskararen erabi-lera normalizatzeko planak martxan jar daitezen ekimen berri bat ari da lantzen. Hala, enpresa guztietako or-dezkariak bildu nahi ditu urriaren 26an, Lesakan, Matxinbeltzean, 18:00etan egingen den bileran. Horretarako, deial-dia bidaliko da egunotan lantegi guz-tietara.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE
Berako aurkezpenean, Aurelio Gutierrez, Juainas Paul eta Jose Javier Fernandez.



BOSGARREN LIBURUA ARGITARATU BERRI DUTE

Bidasoa Ikerketa Zentroak Baztan eta Bortzirietako istorioak bildu ditu

Baztan-Bidasoa eremuko bost historialariren lanak biltzen ditu Bidasoa Ikerketa Zentroak argitaratu duen azken lanak, bosgarrenak («Bortzirietako II. Errepublikaren inguruan, Baztango ordenantzak eta Gerra-ostea»). Liburuan garai eta eremu ezberdinak landu ditu historialari bakoitzak. Aurelio Gutierrez, Jose Javier Fernandez, Juainas Paul, Iker Frias eta Pedro Esartek idatzi dute liburua. Lehenengo hirurek Lesakan eta Berako historia landu dute, eta azken biek, berriz, Baztangoa. Gainera, Juainas Paulek koordinazio lanak egin ditu. Liburu ia osoa euskaraz idatzia dago. Denetara, 250 ale atera dituzte, eta Bidasoaldeko liburu dendetan soilik erosi ahalko dira.

Aitor AROTZENA

Aurelio Gutierrezek, Jose Javier Fernandezek eta Juainas Paulek Berako eta Lesakan 1920ko eta 1930eko hamarkadetan gertatutako hiru pasarteri buruz idatzi dute. Paulek eta Gutierrezek, biek batera, Baztan-Bi-

dasoa eremuan gertatu zen lehenengo greba handia izan dute aztergai. Greba hori Berako Fundiciones-en gertatu zen, 1930ean, eta sei hilabete luze iraun zuen greba gogorra izan zela nabarmendu dute egileek. Bertzalde, Gutierrezek bertze artikulua bat ere

egin du, hori ere Beran kokatua. Artikulu horretan, 1924an anarkista eta Guardia Zibil batzuen artean gertatutako istilua argitzen saiatu da.

Bortzirietan akautzeko, Atalaya aztertu du Fernandezek, 30eko hamarkadan Lesakan argitaratu zen aldizkaria. Garai hartan zeuden kezka eta eztabaida kulturalak bildu zituen aldizkari horrek, goi mailako kolaboratzaileekin (Unamuno, adibidez), baina aldizkariak iraupen txikia izan zuen, bi ale soilik argitaratu baitzituzten.

Gerra Zibila eta Gerra-Ostean Baztanen deituriko artikulua ere biltzen du liburua. Iker Friasek idatzi du hori. 1936. eta 1946. urteen artean kokatzen da, eta Baztango historiako hainbat kontu ilun aztertzen ditu. Bertzeak bertze, 36ko gerran fusilatutako kasuak, lan-batailoien gatibu lanak eta makien ibilerak. Baztango Udaleko artxiboa arakatzear gain,

Juainas PAUL *Liburuaren koordinatzailea*



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Orain arteko liburuak monografikoak izan dira eta honetan gai ugari landu dituzue... Arinagoa izateagatik beharbada?

Beste aukera bat jorratzeko modua zen. Aurrekoetan aritu garenak denak Bidasoa Ikerketa Zentrokoak ginen eta orain beste apartazio batzuk hartu ditugu.

Bi lekutan, Baztanen eta Bortzirietan egin dira erredakzio lanak. Koordinazio lana egitea egokitu zaizu...

Orain arte neurri batean maingu egon gara. Gure artean askoz indar handiagoa dugu Bortziriak eta Malerrekan, Baztanen baino. Hau ate bat idekitzeko modua da.

Berako Fundiciones lantegiko 1930eko greba solasgai duzue... Zer eragin izan zuen Bortzirietako lan munduan?

Garai batean planteatzen zen greba horrek markatzen zuela inguru honetako langile mugimenduaren hasia. Neurri batean egia da, baina ez guziz. Alde batetik, ez da lehenengo greba, grebaren barrenean eskuineko indar sindikalak ageri dira, orduko UGTk ez zuen errepublika garaian izan zuen ezkerreko kutsua, lantegiko gerenteak jokaera guziz pertsonalista agertzen du... Nahasketa handia izan zen.

Gerra Zibila eta Gerra-os-

tea Baztanen aztertu duzue... Zer berezitasun izan zituen?

Beharbada Bortzirietan baino lasaiegia izan zen gerra, momentu batean Beran eta Lesakan izan baitzen frontea. Baina hauek bezala, Baztan ere mugan dago eta horrek emanen dio pisua, batez ere gerra ostean, hainbat gauza izkutuan egin zirelako...

Eta Esartek ordenantzei buruz idatzi du...

Berak egin du dokumentazio guziaren transkripzioa eta gero irakurketa propioa egin du. Gainera, euskaraz egin nahi izan du eta esfortzu pertsonal handia egin du, berak ordaindu baitu Jose Mari Nuñezen euskaratzea. Amorrua ematen zion euskaraz idatzi ezinak eta berretzat erronka zen.

“Bortziriak eta Malerrekan indar gehiago dugu, baina Baztani atea ireki diogu orain”

hainbat baztandarri ahozko testigantzak ere hartu zizkien. Baztango Udaleko Ordenantzei buruzko lana egin du, berriz, Pedro Esartek. Haren lanak bost mende hartzen ditu: XVI. mende hasieratik 1964ko ordenantzara arte. Lan handia egin du artxiboan, eta aurkitutako ordenantzetatik hainbat ondorio eta gogoeta atera ditu. *«Bederatzi liburu gaztelaniaz argitaratu ondoren, hau da euskaraz argitaratu dudana lehenbizikoa da, eta oso pozik nago Jose Mari Nuñezek egindako itzulpen lanarekin»*, adierazi du.

BOSGARREN LIBURUA

Bidasoako Ikerketa Zentroa 1996an sortu zen, eta 1997an atera zuen lehenengo liburukia, Lesakako historiari buruz. Geroztik bi urtetik behin ale bat atera du, Berako historiari buruzkoa, Bertizko Jaurerriaren ingurukoa eta Beran egindako Soziolinguistika ikastaroan emandako solasaldien laburpenekoa. Halere, azkenekoan denbora tarte gehiago pasatu da, Txema Aldaberen heriotzaren ondorioz.

Bosgarren ale honen erditze minarekin daudela oraindik, seigarrena nondik nora joanen den buruan dutela aipatu digu Juainas Paulek: *«1607-1627an fiskalitateak bideratutako ikerketa bat egin zen Nafarroan eta horrek ematen dituen datuak lantzea aztertzen ari gara»*.

TXEMA ALDABEREN OMENEZ EGINDAKO LIBURUA

Urrotzen sortu eta Donezteben bizi zen Txema Aldabe Telletxea Bidasoa Ikerketa Zentroko kideetako bat zen, 2005eko uztailan hil zen arte. 47 urte bertzerik ez zituen. 1980. hamarkadaren lehen urtetan hasi zen nabarmetzen euskararen aldeko lanetan eta Malerreka Euskaltegiaren sorreran bera izan zen bihotz eta buru, eta hainbat proiektu kide izan ziren bateratzaile. Gerora, euskararen aldeko hainbat proiektutan egin du lan: Mendaur barnetegiaren sorreran eta kudeaketan; Ezpelura eta Langarra kultur taldeetan, Tipi-ttapan kazetari... *«Kanpotik laguntza eske etortzen ziren guzietan ematen ziren aterpe eta euskararen aldeko kanpaina orotan izan ohi zen bultzatzaile eta laguntzaile»* diote Bidasoa Ikerketa Zentrotik.

«UZTA OPAROA UTZI DIGU»

Bosgarren liburukia normala baino geroago argitaratzeko arrazoietako bat bere heriotza izan dela aipatu digu Juainas Paulek. *“Txema Aldaberen oroimenez idatzia dago, eta gazte joan arren, oparoa izan da berak utzitako uzta. Euskararen aldeko lanetan nabarmendu da gehien, euskaltzaletasuna bihotzean baitzeraman. Malerreka zen haren lan eremua eta bertako euskalkia haren bihotzeko ninia. Azken urteotan, gurekin izan dugu lane-*



ARTXIBOKOA

Txema Aldabe zena gogoan idatzitako liburua izan da.

an, eta arrasto ahaztezina utzi du gure bihotzetan, lagun eta lankide xarmanta izan delako guretzat. Beti esaten da, hil ondoren hildako guziak onak zirela... Ez dakit kasu guzietan egia den, baina bere kasuan ez da dudarik, gizon eta euskaltzale ona zen”.

Juainasek gogoan duenez, Txemaren heriotzak juxtu lanaren erdian zeudela harrapatu zituen: *«Geldiunea izan genuen nahitaez, burua ezin altxatuz ibili ginelako. Noski, liburua berari eskaini behar genion, zer gutxiago!»*.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dulosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Aitor eta Fanny, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Urriak 19. Bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko eguna

Bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko egun honetan, gaitz honek eragiten dituen gizarte arazoak azpimarratu nahi ditugu.

Bularreko minbizi dugun emakumeok gaixotasunarekin bizi, agresibitatea jaso eta askotan feminitatearekin zuzenean lotzen gaituen zati bat galdu behar dugu.

Gaitza dugunok, gauregun dugun erronka handienetako bat, minbiziari borroka irabaztea da eta diagnostikoan, tratamenduan eta gaixotasunaren eza gutzan aurrerapen aunitz izan badira ere, oraindik bide aunitz gelditzen dela badakigu.

Gaixotasunari borroka irabazi nahi dugu, nahiz eta batzutan gaixotasunak gure bizitzeko gogoak zapaltzen dituen.

Emakume guztiok daukagu arriskua eta horregatik gaitzaren prebentzioak eta diagnostiko goiztiarrak duten garrantzia azpimarratu nahi ditugu.

Minbizi gaixotasuna da eta alderdi horretatik egin behar zaio aurre. Ez da bakartasunean bizi eta jendearen aitzinean gorde behar.

Horregatik lanean ari gara bularreko minbizi ez dadin egun bateko albiste azpimarragarria soilik izan, egunero go-goan eduki behar dugun errealitatea baizik.

Mila esker borroka hau erraxago egiten diguzuen guztiei.

Pilar ETXEBERRIA
(Irurita)

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

BERTSO

jaialdia

25 urte

azaroaren 4a
larunbata
arratsaldeko 6etan
Lesakako pilotalekuan

ANDONI EGAÑA

SEBASTIAN LIZASO

MAIALEN LUJANBIO

XABIER SILVEIRA


ESTITXU AROZENA

JON BARBERENA

Aurkezlea: MIREN RUBIO
Gai Emalea: MANOLO AROZENA

Antolatzailea: KORROKIN IRRATIA
Laguntzaileak: BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA, LESAKAKO UDALA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D.NOTICIAS 2006-10-01

«Hamabi urtetarako mendian aritzen nintzen lanean aziendekin eta nere bizitza zuzenean eguraldiaren menpe zegoen, horregatik zen hain garrantzitsua hurrengo hilabeteetan zer eguraldi egingen zuen jakitea. Nik ezin izan nuen eskolara joan, eta ez ditut gauza eta leku asko ezagutzen, baina badakit tenporek ez dutela inoiz hutsik egiten».

Miguel SUKUNTZA
Leitzako artzaina

D.Noticias 2006-10-01
«Egia esateko, ez nago nire sasoirik onenean oraindik. Horretarako, beste hilabete bat beharko nuke, Euskadiko eta Nafarroako finaletako lanak luzeak baitira eta lan handia egin behar baita. Orain arte erakustaldietan jardun dugu gehienbat. Nolanahi ere, ari naiz indarra eta iraupena hartzen».

Donato LARRETXEA
Arantzako aizkolaria
BERRIA 2006-10-10

• 11 GALDERA LABUR •

Beran bizi den lesakarra edo Lesakan jaiotako beratarra?

Beran bizi den lesakarra, bai.

Norbaitek ezagutzen hau hire egiazko izenarekin?

Jende guttik, familiakoak eta lagunak bakarrik.

Beti Gazte-Gure Txokoa derbian, bihotza noren alde?

Bihotza berdindua izanen dut, erdi bana, bietan aritua naiz eta.

Futbolari garaiko hire oroitzapenik onena?

Lehen aldiz Preferentera igo ginenikan Beti Gazterekin. Hura gauza handia izan zen!

Orain beteranoekin aritzen haiz... Zer pisatzen dute gehiago, kiloek edo urteek?

Nere kasuan kiloek, dudarik gabe.

Beratarrek gauzak antolatzeke eta lesakarrak besta egiteko... Topikoa edo egia?

Egi berdadera da duk hori, Beran gauza aunitz eta ongi plantatzen dituzte eta lesakarrak besta egiteko prest gaude beti; nik besta egitea nahiago diat bai.

Urrian izatearekin, ehiziko eskopeta utziko duk futbol partida ikusteko?

Ezta pentsatu ere! Ahal bada egun guzia ehizian pasatuko diat. Aurten ez diat partidarik ikusiko. Ehizi asuntu hori gaitza duk neretzat.

Beratarrek diotenez, lesakar one-

nak etortzen zaizkie herrira bizitzera...

Hori egia da, bai.

Lesakarrak zera diote, berriz, herriko aluenak joaten direla Berara bizitzera...

Hori ere egia izanen duk, noski!

Onddozalea ere ba omen haiz... Udazkena ongi doaie?

Bo, hagitz ongi, bazegok denentzat aukera.

Dieta begetarianoa hasteko puntuan omen hago...

Txirrinta izaten diat, baina hilabete alua heldu duk horretarako. Heldu den urterako utzi beharko diagu.



Jabier IRASTORTZA «OTSUA»
Beti Gazte eta Gure Txokoako jokalaria ohia

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

**Haur jaioberrientzako
osteopatia tratamenduak**

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BURKAITZEA

· ostatu
· erretegia

Zugiteramundiko bidea, 3 km
948 599 280 · URDAZUBI

TOLDOOS BAZTAN

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alkairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea · BERA

KULTURA

Nafarroako Euskal kantu txapelketa azaroaren 4an hasiko da Tafallan

Izen emateko epea urriaren 31n akautuko da

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuako Nafarroako Euskal Kantu txapelketan izen emateko epea urriaren 31 bitarte zabalik dago. Horretarako, elkartearen berran (948 141812 telefonoan edo nafarroa garaia@kantuzale.net helbide elektronikoan) edo edozein irrati euskaldunetan eman behar da izena, Xorroxin edo Karrape irratiaren errate batera.

15 urtetik goitiko edozeinek har dezake parte, bakarka, bikotean edo 3 eta 10 partaide arteko taldetan.

Partehartzaileen mailaren gorakada dela eta, partehartzaile berri beraien meritua gogorarazteko, aurtan estrainekoz parte hartzen duten partaideek «be-

rrien maila» osatuko dute eta sari berezia izanen dute. Taldeen partehartzea ere bultzatu nahi izan du Kantuzaleen Elkarteak.

**BIGARREN SAIOA
ELIZONDOKO LUR
DANTZALEKUAN
AZAROAREN 11N**

Txapelketa azaroaren 4an abiatuko da, 18:00etan Tafallako Kube aretoan. Ondotik, kantu poteoa eta bertso afaria izanen da gonbidatuekin.

Elizondoko Lur aretoan egingen da bigarren saioa azaroaren 11n, ordu berean.

Finala, azaroaren 18an jokatu da Leunberriko 31 aretoan, 18:00etan. 23:00etan berriz, biharren saioa bat egingen dute partaide eta gonbidatuekin.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Joan den urteko Kantu Zaharren Egunean, Angel Mariezkurrena antolatzailerak, Joxe Angel akordeolaria eta Xabier Euzkitze kantariaren artean.

Kantu Zaharren Eguna azaroaren 25ean egingen da Dantxarineako Lugarana jatetxean

350 lagunendako lekua izanen da

ttipi-ttapa

Azaroaren 25ean ospatuko da Urdazubiko Dantxarinea auzoko Lugarana jatetxean Kantu Zaharren Eguna. Joan den urtean, Elizondoko Lur dantzalekuan izandako arrakasta ikusita, aurtan ere kantuzale aunitz biltzea espero du Angel Mariezkurrena antolatzailerak. Halere, Lugarana jatetxean jende guttixea goa sartzan da, 350 lagun inguru, eta honela, kantuak hobeki aditu direla eta goxotasun gehiago izanen dela uste du Mariezkurrenak. Bertze aldetik, urriaren 22tik aitz-

nera salgai jarriko diren txartelak lehenbailehen eskuratzea aholkatu du antolatzailerak. 50 euroan salgai jarriko dira Sunbillako kanpinean, Dantxarineako Benta Peion eta Elizondoko Antxitonea trinketeen. Prezio horretan, bazkaria, bazkalondoko kantu giroa eta afari-berendua sartuak daude. 5 euro gehiagorekin, Sunbillatik abiatu eta Doneztebe eta Elizondon barna igaroko den joan-etorriko autobusa erabiltzeko txartela ere eskura daiteke. Joan den urtean bezala, kantu-liburuxka banatuko da.

saroha
gastegia dardaga

of. de artegira 25 bajo 1948 63 08 99
34700 berain(saroha) www.saroha.net

TOAILAK

Toailak-Mantelerak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzan ditugu

Hemiko bestetarako, kamisetak, eta blus
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Etteri Plz. Berriz 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

WATER-BIKE

Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

BAR Botxo
OSTATUA

© 948630052 • Zalain • BERA

IRONE - GAZTEAK

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

BERA

XX. Lurraren Eguna igandean ospatuko da

Bezperan, Lizuniagako Igoera lasterketa egingen da

Amaia eta Ainhoa

Urriaren 22an ospatuko da Gure Txokoa Elkartek Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako XX. Lurraren Eguna. Urtero bezala ekitaldiz gainezka datorren egitaraua prestatu dute. Urriaren 21ean, bezperan, egingen den Lizuniagako Igoera laisterketarekin hasiera emanen zaio. Igandean, berriaz, ekitaldiak goizeko 10:30ean hasiko dira, eguraldi ederra egiten badu Altzaten eta euria bada polikiroldegian eta Alzateko frontoian. Horrela, txalaparta, eskulangileen azoka eta erakusketa, barazki erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta, argazki erakusketa, ezti salmenta, ikastetxetako postuak, taloak eta gasna salmenta, etab. izanen ditugu egun osoan. Bertzalde, 11:00etan XX. Gasna eta VIII. Sagardo lehiaketa ospatuko dira. Gazta lehiaketaren sariak hauek izanen dira: 1. saria 220

euro eta oroigarria, 2. saria 100 euro eta 3. saria 75 euro. Sagardo lehiaketaren saria bakarra izanen da, 200 euro eta oroigarria. Lehiaketetan parte hartzeko baldintza Bortzirietako ekoizlea izatea da. Gaztak eta sagardo botilak urriaren 22an goizeko 10ak baino lehen hartuko dituzte, ohi denez Rikardo Baroja Eskolan. Gasna bakoitzaren truke 12 euro ordainduko dira eta bi sagardo botilaren truke 6 euro. Ordu berean, 11:00etan, Bera Trikitixa eskola eta Berako Musika Eskola-koek beraien saioa eskainiko dute. Ondoren, 12:30ean Urnietatik etorritako dantzarien ikuskizuna izanen da. Arratsaldeari dagokionez, 16:00etan haurren joakoak eta Beti Alai txaranga ikusteko aukera izanen da. Ondotik, 17:00etan, sari banaketa, enkantea eta Jexux Mari Irazu eta Julen Zelaieta bertsolarien bertso saioa adituko ditugu. Egunari akabera



ARGAZKIA: GOIKO

Euskaltzaindiaren urteko batzarra Beran egin zen
Urriaren 6an Euskaltzaindiak urteko batzarra egin zuen Beran. Urte guziz, Euskal Hizkuntzaren Akademiaren zuzendaritza Nafarroa Oinez egingen den herrian biltzen da, bere babesa emateko. Goizean, haien artean bildu ondotik, Labiaga ikastolako azpiegiturak bisitatu zituzten. Arratsaldean, agerraldi publikoa egin zuten Kultur Etxean. Euskaltzaindiaren ordezkariak Andres Urrutia eta Andres Iñigo izan ziren, Labiagakoak Mainer Senper eta Joxean Oiz, udalaren izenean Jon Abril eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Patri Arburua aritu ziren solasean.

emateko, ilunabarrean dantzaldia izanen da Irats Taldearen eskutik.

Gazteentzako ikastaroak

Berako Udaleko Giza Gaietarako Batzordeak gazteentzako bi ikastaro antolatu ditu. Azaroaren 4, 11 eta 18an DJ ikastaroa izanen da eta azaroaren 25ean eta abenduaren 2an Capoeira ikastaroa. Kultur Etxean izanen dira biak arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek urriaren 16tik 27ra bitartean izena eman beharko dute 012ra deituz. 14 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta daude eta ikastaro bakoitzean gehie-

nez hamabortz lagun onartuko dira. 10 euro kostako da ikastaro bakoitza eta ordainketa egiteko txartel zenbakia eman edo udaleko kontu korrontean dirua sartu beharko da.

Elikadura eta Nutrizioaren inguruko azken bi hitzaldiak

Urrian, Udalak antolatuta, Elikadura eta Nutrizioaren inguruko hitzaldi sorta martxan jarri zen Nagore Txopereana, udaleko dietistaren eskutik. Hasieran hiru garren adinekoei zuzendutakoak izan ziren eta ondoren, jende guztiari zuzendutakoak abian jarri ziren. Hitzaldi sorta bukatzeko, bi

bakarrik gelditzen dira. Bat, urriaren 23an izanen da, «Elikadura osasungarria haurtzaroan eta nerabezaroan» eta bertzera, «Elikadurari loturiko sinesmenak eta usteak», urriaren 30ean. Biak arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxean izanen dira.

Haurrentzako ipuin kontalaria

Kultur Batzordeak eta Berako liburutegiak antolatuta, urriaren 27an, ostiralean, Estitu Mentaberri ipuin kontalaria Beran izanen da. Arratsaldeko 18:00etatik aintzineraz 5-8 urte bitartekoentzako Hego Ameriketako ipuinak kontatuko ditu.

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Eguneroko menua eta
astiberrak menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

Ameriketara ibilitako artzainen eguna ospatuko da urriaren 22an

Eskualde osoko artzainak bilduko dira herrian igandean

Aitor AROTZENA

Igande honetan, urriaren 22an, egingen da herrian Ameriketara joan ziren artzainen topaketa. Egitarau zabal eta aberatsa antolatu du egun horretarako Udalak, hainbat enpresa eta erakunderen laguntzarekin.

10:30ean Meza izanen da parrokian, hildako artzainen alde. Ordubete beranduago, herriko karriketan barna zaldunek gidatutako artaldeak ikusteko aukera izanen da. Ondotik, ardi-latxen erakusketa izanen da ASLANA elkar-tearen eskutik: ardi mutur zuria eta mutur beltz saila, bildots mutur zuria eta mutur beltz saila, ahari saila eta eskualdeko sasi-ardiak ikusgai izanen dira.

Bertzelako erakusketak ere izanen dira plaza inguruan, hala nola, ardi-ile mozketak aitzurrarekin eta makinarekin, zintzarrien erakusketa eta gazta lan-tegiak. Gaur eguneko gaztagileak lanean ikus-teaz gain, erakusketa etnografikoa ere plan-tatuko da, garai batean gaztak egiteko erabil-tzen ziren tresnak era-kutsiz. Ondoren bertso-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko abesbatza Xabierren kantari

Heldu den urtean 25 urte beteko dituen Lesakako Abesbatzak emanaldia eskaini zuen Xabierko Jasso Auditorioan irailaren 30ean. Marisol Perezen zuzendaritzapean, «Mila ahots Xabierri kantari» zikloaren barneko kantaldia eman zuen abesbatzak Erromesaren Mezan.

lariak ere arituko dira. Egurdiko 12:30ean, hitzaldia izanen da Herriko Etxeko arkupetan. Jose Mailea, Renoko Unibertsitateko irakasleak «Artzainek zuhaitzetan utzitako seinaleak» gaia izanen du hizpide.

BORTZIRIETAKO ARTZAINEN BURUZKO LIBURU ETA DVDA

Bortzirietako artzainen argazkiak eta bideoak ikusteko aukera ere

izanen da. Aipatzekoa da, egun honen aitzakia-ekin, «Bortzirietako artzainak Ameriketara» izeneko liburua eta DVDa argitaratu dutela Laura Yanci, Goizalde Ur-danpilleta, Jesus Gol-daraz eta Lander San-tamariak. Artzain hauek kontatutako pasadizoekin, bertsoekin edo dokumentazioarekin batera, Ameriketara aterako argazkiak bildu dira argitalpen interesgarri hauetan.

Bortzirietakoak ez ezik Baztan-Bidasoaldeko artzain guztiak biltzeko asmoa duen eguna borobiltzeko, 14:00etan bazkaria izanen da frontoian. Bazkalondan, opari banaketa, Es-tatu Batuetarako bidaiaren zozketa, berriz ere bideoa ikusteko aukera eta musikarekin dantza egin ahal izanen dute garai batean Ameriketara ibilitako artzainek, orduko kontuetaz so-lastu bidenabarkoan.

FLASH

Mololo Irigoien eta Xabi Zozai Munduko txapel-dun

Bi lesakarra joan ziren Mexikon jokaturako Munduko pilota txapelketan parte hartzera eta biak urrezko dominarekin bueltatu dira. Beraz, Munduko bi txapel-dun berri ditugu herrian. Eskuz banaka, Mololo Irigoienek 22-5 aisa irabazi zion finalean Christophe Elizalde itsasuarriari. Pala motzean, azken partidak jokatu ez bazituen ere, urrezko domina eskuratu zuen Espainiako selekzioarekin partida bat jokatu zuen Xabi Zozaiak.

Agenda XXleko bilera

Zer garen eta zer izan nahi dugun aztertzeko, Agenda XXleko parte-hartze foroa egingen da urriaren 30ean, 19:00etan udaletxean. Lurraldea eta Natura inguru-neak; uraren zikloa; hondakinen kudeaketa; energia, airea eta zara-ta izanen dute solasgai.

Erosketa saskia

Nutrizioari buruzko jardunaldien barrenean «Erosketa saskia» izeneko mahaingurua egingen da urriaren 25ean, asteazkenarekin, Kasi-noan, 17:00etan.

Notario berria

Maria Teresa Perez Dapena da Lesakako notario berria. Nafarroako Gobernuak egin du izendapena, udan lehiaketa deitu ondotik.



2006/10/19 • 432 zbk

ETXALAR

Izaskun Ariztegi eta Lourdes Galarregi Euskal Herriko azpitxapeldun

Bigarren postua lortu zuten
Agurainen Arpanlari Txapelketan

Joseba eta Nerea

Ezustekoa eman zuten Nafarroako txapelketan eta gogotsu joan ziren Euskal Herrikora. Ez zuten postu ona egiteko esperantza handirik baina usteak erdi ustel. Sekulako erakustaldia eman zuten Arabako Agurainen jokatu zen Euskal Herriko Nesken Arpanlari Txapelketan eta azpitxapeldun izan ziren 20 segunduko aldearekin. Hagitz guttiatik ez zuten txapela herrira ekarri. Arpanean aritzeko dohai apartak dituztela argi eta garbi erakutsi zuten eta serio entrenatzen segitzen badute hurrengo urtean txapela jauntziko dute. Zorionak!

Usategietako Igandea

Giro ederrean joan zen urriaren 8an Usa-

tegietako Igandea. Eguraldiak erositakoa ematen zuen, ederra eta beroa. Horren aitzakian, jende parrasta ibili zen goiz partean. Iharmendiko gainean. Arratsaldean berriz, karrikara jaitsi zen besta-giroa. Josu Goiak egindako eskultura inauguratu zen eta haur franko bildu zen frontoian antzerkia ikustera. Ondoren, musika izan zen Trikidantz taldearen eskutik eta jende andana animatu zen plazara dantzara. Urtero bezala, hiru sariren zozketa egin zen. Hauek izan ziren zenbaki sarituak: Lehenengo saria (12 uso bizirik) 963 zenbakiarentzat. Bigarren saria (bi lagunentzako afaria) 1104 zenbakiarentzat eta hirugarren saria (kanping dendak) 442 zenbakiarentzat.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Izaskun Ariztegi eta Lourdes Galarregi, Nafarroako txapela irabazi zutenean.

Patata tortilla txapelketa

19 talde aurkeztu ziren Usategietako Igandeko bezperan egin zen II. Patata tortilla txapelketara. Frontoia jendez bete-betea zegoen. Giro ederrean ekin zioten denek lanari eta ordu bat baino lehen entregatu zituzten tortillak. Epaihamaian Antonio Etxeberrria, Pakita Alzuguren eta Iñaki Pika-bea zeuden. 19 tortillak probatu eta puntuatu ondotik bi sari eman zituzten: Lehenbizikoa, gazteen kategorian, Alaitz eta Aitor Danborienak eta Beñat Maiak irabazi zuten. Nagusien taldean berriz, Aitor Telletxea, Joanes Irigoien eta Loinaz Iribarren izan ziren irabazleak. Ondotik,



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Tortilla txapelketako irabazleak. Lehen saria eta arropa onenari emandako saria eskuratu zutenak.

afaria izan zen frontoian eta kontzertua Herriko Ostatuan.

Kultur egunak

Kultur Egunak izanen dira aste honetan. Ortzegunean, urriak 19, mahaingurua egingen da Kultur Etxean "Etxalarraren etxe berriak: zenbat eta zertarako?" izen-

burupean. Ortziralean ipuin kontalaria izanen da Kultur Etxean eta larunbatean altxorraren bila haurrentzako jolas egingen da frontoian. Ondotik, bertso afaria izanen da Herriko Ostatuan eta herri arteko txapelketako saioa jokatuko da, Bortziririk eta Zarautzen artean.

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

arte kari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

Tel: 948 634 179

ARANTZA

ATERPE

ALBERGIA • IATETXEA

BORTZIRUDI

bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK • KAMUSETAK • BIFERAK • TOSKATIDAK (Nahi duzun neurri - dimentsioekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK • BUKIDETAK • TIRAKIDETAK • PLANDAK
ENKILADERNATZAK • PLASTIFIKATZAK • PEPEPETA • BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO • LOGOTIPOAK • ERRODULAK • IMPRENTA

Ertzaintza 26. Eskualdeko Baitan 11 • BERRA • Tel/Fax: 948 631 531

ARANTZA

Azaroan ludotekak ateak irekiko ditu estreineko aldiz

Pilotari gaztetxoak Bortzirietako txapelketan parte hartzen ari dira

Nerea ALTZURI

Gauregun hagitz ohikoa da familia batean guraso biek kanpoan lan egitea. Seme-alaben zainketa eta ardura atautxi-amatxiek ez bada, familiaren ezagun batek edo haurtzaindegiko begiraleek hartzen dute. Herrian ez dago haurtzaindegirik, baina gaur egun haurtiki kuadrila dago eta eskolan hasteko adinik ez duten neska mutikoek azarotik aitzinera ludotekan jolasteko eta ikasteko aukera izanzen dute. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuaren bitartez gaia landu eta familia eta lanaren uztartzea errazteko zerbitzu hau abian jarriko da. Momentuz be-

deratzi gurasok izen eman dute eta beuren haurrak ludotekara eramane dituzte. Astelehenetik ortziralerara 9etatik 13:00etara izanena da ikasturte osoan. Medikuen etxean kokatzekoa baldin bazen ere, orain bertze leku bat dute buruan.

Beti ere, azarotik goizero ludotekak bere zerbitzua eskeinitu du. Inguruko gurasoren batek ere interesa izanez gero, bere seme alabak urte bat edo bi baldin baditu, badaki herrian ere baduela aukera. Printzipioz izen emateko epea joan den ortzeguenean akautzen zen eta zenbat haurrek hasiko duten ikasturtea, kopu-



Onddoak nonahi eta aunitz atera dira aurtan

Horrelako irudia edonork atera izanen du aurtan bere argazki kamerarekin baina onddo denboraldia denez, aldioro egiten dugun bezala argazki bat paratu nahi izan dugu. Baserri bateko sukaldean zabal-zabalik paratuak ikusten ditugu. Aurtengo mendietako onddo baratzeen lagin bat bertzerik ez da honako hau. Honez gero etxeetan onddoak prestatu dituzte etxekoandre eta gizon ia denek. Jaki preziatua probatu ere probatu dugu!!

ru zehatzaren daturik ezin izan dugu bildu.

Pilota txapelketa

Joan den asteburuan Bortzirietako pilota txapelketa hasi zen. Ondokoa, igande goizeko argazkia duzue: ikusle mordoxka, tartean herriko pilotariak beren partiduaren zain.



ETXALARKO KULTUR EGUNAK

URRIAREN 19an, 20an eta 28an.

Eguna: Urriaren 19an, ortzegunarekin

Ordua: 20:00etan

Tokia: Kultur Etxean

Mahaingurua: Etxalarren etxe berriak: zenbat eta zertarako?

Hizlariak: Jakob Errekondo: Zeraingo udal teknikaria

Jabier Lekuona: Arkitektoa

Juan Fermin Mixelena: Lesakako Alkatea

Xan Harriague: Sarako zinegotzia

Eguna: Urriaren 20an, ortziralararekin

Ordua: 17:00etan

Tokia: Kultur Etxean

Ipuin kontalaria: Afrikako ipuinak
Miren Camisón

Oharra: afariako bartelak salgai izanen dira aldeaz aurretik Herriko Ostatuan eta Elutsan.

Eguna: Urriaren 28an, larunbatarekin

Ordua: 16:00etan

Tokia: Frontoian

Altxorraren bila - haurrentzako jolasa.

Eguna: Urriaren 28an, larunbatarekin

Ordua: 21:00etan

Tokia: Herriko Ostatuan

Betso afaria. Herrien arteko txapelketa. Kanporaketa. Bortzirietako eta Zarautz lehiatuko dira.

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:



DONEZTEBE

Juan Telletxeak segituko du Erreka elkarteko presidente karguan

Zuzendaritzaren legealdia bi urtekoa izanen da hemendik aitzinera

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkarteak zuzendaritza batzordea berritzeko lehen batzar orokorra egin zuen duela aste batzuk. Orduan ez zuten batzorde berririk eratu eta, honenbertez, bigarren batzarra egin behar izan zen irailaren 29an zuzendaritza berritzeko asmoarekin. Juan Telletxeak presidente segituko badu ere, berte karguetan aldaketak izan dira. Presidenteordea Ibai Marizkurrena izanen da; idazkaria, Xabier Bañares eta Javier Almandoz diruzain lanetan arituko da. Elkarteak dituen sail ezberdinetan aldiz aldaketa gutti izanen da. Eskubaloian Narciso Larrazak segituko du, pilotan Patxi Altzuk; judoan Oscar Mindegiak; atletismoan Santi San Migelek, txirrindularitzan Pedro Bañaresek eta mendiko jardueretan Alejandro San Migelek.

Bertzalde zuzendaritzaren lana arintzeko



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Merkatari Elkartearen saria Maite Iribarrenentzat
Doneztebeko Merkatarien Elkarteak Sanssug A40 argazki-makina digitala zozketatu zuen bere bezeroen artean. Maite Ariztegi doneztebarrari egokitu zitzaion saria. Argazkian, seme-alaba eta ilobarekin ageri da Maite.


berte hainbat erabaki hartu zituzten bilkuran. Lan gehien dituzten arloetan komisiok eratzeko konpromisoa hartu dute. Hori dela eta Eguberriko Saskiaren

Komisioa Pablo Elizondo, Leire Uterga eta Joseba Legarraren esku geldituko da eta herri krossarena, erabat osatu gabe gelditu bada ere, Narciso Larraz eta

Santi San Migelen ardurapean.

Hemendik aitzinera zuzendaritzaren legealdiak bi urtekoak izanen dira eta ez lauokak, orain arte bezala.

NARBARTE



Mitxel Aginaga Nafarroako mendi Duatloi txapedun bederatzigarren aldiz

ttipi-ttapa

Bodegas Borsao taldean ari den Mitxel Aginagak bederatzigarren aldiz irabazi du Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa. Urriaren 1ean Orribian egin zen proban bigarren izan zen nartearra, Jon Arozena gipuzkoarraren gibeletik, baina nafarren artean ez zuen areriorik izan. Bigarren Pablo Arrastia izan zen eta hirugarren Asier Lopez. Emakumeetan Ana Casares izan da txapeldun, Erkuden Almagro eta Eva Bustoren aitzinetik. Partehartzaileek 5 km lasterka, 16 mendi bizikletan eta 2,5 lasterka egin behar izan zituzten.

««««« H I R U K I D E »»»»»

Eguzki panelak ◀ ▶	Iturgintza	630 441 315
Elektrizitatea ▶ ▶	Arre egokitua	606 980 440
Industria mantenimendua ▶		628 015 933

Zalain Industriales 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 392 • email: zerbitzua@terra.es

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

948 637 511 • 607 226 891
Bera - Nafarroa

SUNBILLA

Laburmetraiaren irudiak grabatu dituzte dagoeneko

Bertze aldetik, mutilen beharrean dago herriko dantzari taldea

Jaione OTXANDORENA

Joan den urriaren 6, 7 eta 8an grabatu ziren gure herrian «Botones» izeneko laburmetraiaren irudiak. Herrian nabaria zen zerbait berezia gertatzen zela, jar-tzen zituzten argi haundiak eta filmea grabatzen ari ziren jendearen joan etorriak zirela eta. Gure herriko zenbait bizilagunek, horretarako beharrezkoak ziren probak pasatu eta parte hartu dute laburmetrai honetan:

Ainhoa Etxebeste, Amaia Apezetxea, Pako Errandonea, Estitxu Arretxea, Jose Miguel

Zelaieta, Maria Victoria Graziarena eta Adelaida Migeltorena.

Julio Mazariko, laburmetraiaren zuzendariak, ezin izan digu erran noiz eta nola ikusten ahalko ditugun gure herrian grabatutako irudiak, baina ziur jakiten dugunean, lerro hauen bidez emanen dizuegu informazio horren berri.

Dantza talderako mutilak

Dantza taldetik abisatu dutenez, mutil beharra dago taldean, beraz herriko mutilak ani-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Herriko dantzari taldean mutilen beharrean daude. Dantza ugari ikasteaz gain, ongi pasatzeko modua izaten dela aipatu digute orain taldean daudenek.

matu nahi dituzte taldean izena emateko, dantza ugari ikasteaz gain, taldean momentu dibertigarriak pasatuko dituztela ziurtatzen dute orain arte taldean dauden partaideek.

Ezbeharra

Joan den urriaren 8an, Rufino Arrieta eta Juan Jose Garro onddo

bila atera ziren goiz par-tean. Behin mendian zeudela, bakoitza alde batera bereiztea erabaki zuten eta eguerdi al-dera Rufino bere adis-kideari deika hasi zitzaion etxera itzultzeko asmoz. Ikusirik honek ez zuela bere oihu ez-ta telefono mugikorrari erantzuten, herrira eto-ri zen laguntza billa.

Familiakoak eta la-gunak bere bila ateri-zen eta arratsaldeko seiak aldera harrapatu zuten Juan Jose Gar-roren gorpua, amilde-gi batetik erori eta hil-da. Juan Jose Garro, Ibarburu etxekoa zen. Etxea berez Donezte-bekoa bada ere, bizia beti Sunbillan egin izan zuen.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

**MANTETAN
ESKAINITZA
ZABALA**

albornozak · mantelak
edredoi nordikoak · kuxinak
ohe estalkiak · maindireak
toailak · edredoi-azal nordikoak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

GOIZUETA

Hastear daude ur faltaren arazoari bukaera emanen dioten obrak

Deposito berria eginen da Goiko-lturrin eta kanalizazioa hobetuko da

Esteban AROTZENA

Teknikoen aurreikuspenak betetzen baldin badira, Goiko-lturrin inguruan egunotan hasiko diren obrek batera bukatuko dira, puska baterako behintzat, azken urte hauetan lehorre garaieran, herriak jasango dituen ur faltaren arazoak. Horretarako, lehengoaren ondoren beste deposito bat egoteaz gain, duela 13 urte berritu gabe utzitako kilometro bateko kanalizazioa osatuko da orain.

Azpiroz-Saralegiri

eman zion Udalak irailaren 13ko batzarrean lanen ardura, baina dagoeneko gauza jakina da, enpresa horrek herriko Zabala-Goikoe-txeari azpikontratatu diola 224.958 euroko obra hau. Bost hilabete epea izanen dute hauek lanak bukatzeko.

Aipatutako batzarrean erabaki zen kanposantuko eta suhiltzaileen lokal berriaren bigarren zatiko obren aurrekontuen eguneratzea ere. Lehenbiziko epean hutsik gelditu zen esleipena, inor aurkeztu



ARGAZKIA: GORKA LUJANBIO

Ikurriña Mandoegin

Segi gazte erakundearen ekimen bati esker, herriko parajerik altuenean, Mandoegin (1.045 metro), dago ikurriña irailaren 30az geroztik. 40 herritar igo ziren bertara, eguraldi kaxkar askiarekin gainera.

ez zelako. Aurrekontu berrituak 49.465 eta 81.767 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Añorga-Goizueta mendi bizikletaz

Añorgako eta Goizueta txirrindulari talde batek, Donostiako auzo hori eta gure he-

rria bitarteko mendi bizikleta ibilbidea antolatu du urriaren 29rako, igandea. Aranon izanen da gosaria eta Umore Ona elkartearen berriz, bazkaria. Hilaren 27ra arte Urrutinean egonen da martxa honetarako izen eman nahi dutenentzat zerrenda.

Udal arkitektoa

Idoia Legarreta udal arkitektoa Herriko Etxean bertan hartuko ditu interesatuak hileko lehenengo astelehenetan goizeko 9:00ak 11:00ak bitarteko ordutegian. Dena den, aurretik hitzordua hartzea beharrezkoa izanen da.

ARESO

34.000 euro bildu ditu Udalak ehiza postuen enkantean

laz baino mila euro gehiago

Juana Mari SAIZAR

Aurtengo ehiza postuen enkanteari dago-kionez oso ongi joan da. Jende asko bilduzen baita jende berria ere eta diru aldetik birigarro ehiza postu batek 3836 euro egin ditu. uso postuak berriz 2423 euro gehien egin dituenak, eta Udalak denetara 34.000 euro bildu ditu,

lazio baino 1.000 euro gehiago. Herriarrak Peña, Perratokia, Museo eta Gañarben aritzen dira ehizan: guztira 35 postu daude eta zerrendari jarraituz denak mugitzen dira.

Abade berria

Patxi Izko abade berria etorri zaigu Parrokia Unitatera eta beste

3 herriekin batera geurea zerbitzatuko du. beraz, martxan aste honetan hasiko dira eta bi katekista gazte berri egingo dute lan besteekin batera.

Migel Antton Marzolek bere Urkiolako baratzean 30 kiloko kalabaza egin du. Kalabaza mota hau jendearentzat jangarria da. Aurtengo udazkenean nahiko ontto eta gaztaina ematen ari dira, baratzaren fruituarekin batera.

ARGAZKIA: JUANA MARI



elizondo
FERIAK
urriak 27-28



Cris
ileapaindegia

Tel: 948 580 025 - Giltzaundi, 16 - ELIZONDO

Elizur ileapaindegia

Telefonoa: 948 580 830

Ondutegia:
Bereizketa
Ondutegia
9:00 - 18:00
Larrendak
8:00 - 14:00
Astelehena
Itxura

M^{ra} Luisa
629 438 705

TAXIA

ESKIZ
INFORMATIKA ZERBITZUAK

Orain helbide berria: Muzetio eta Felix plaza ondoan

Tel: 948 581 822 - Brasilo Iriarte, 4 behe - ELIZONDO

ADATSA
ileapaindegia

(Bosko Inerzio Lurjone, 58)
Telefonoa: 948 581 467
ELIZONDO

Iris

Comunicación egunerako
break, lehenak eta
eremu eskaintza berrak

LOREDENDA - Elizondo

Naturala: Jaime Urrutia, 19 - Telefonoa: 948 58 10 53
Artifiziala: Jaime Urrutia, 21 - Telefonoa: 948 58 10 53

GOIZ-ALDE estatua

Aukera zahala berria. Babak eta pintaketa
Menuak ematen ditugu

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO
© 948 581 334

artesia

BULEGO ALTZARI ETA HORNIDURAK

Jaime Urrutia 57 | 38700 Elizondo | Navarra | www.artesiaga.com
tel. 948 580 639 | fax 948 580 817 | artesiaga@artesiaga.com

DEI IZAGUTIA ETA GURE ESKARITZEN ALDIZKARIA DONANIK JASO DUZU

Eskisaro
jatetxea

Jaime Urrutia karrika - Telefonoa: 948 580 013
ELIZONDO

NAFARPRESS

Prentsa - Aldizkariak
eskola eta bulego materiala

Ekargatu zure festa-ibursak

Jaime Urrutia, 43 - Tel: 948 580 902 - ELIZONDO



Sortu berri da Baztango Merkatarien Elkartea

Izena eta logoa hautatzeko lehiaketa zabaldu dute. Irabazle suertatzen denak 400 euroko saria izanen du

J. IRIGOIEN

Beran eta Donezteben egin den bezalaxe, orain Baztanen ere osatu dute Baztango merkataria eta zerbitzuen elkarte propioa. Urriaren 10ean gertatu zen hori. Elizondoko Arizkunenean egin zuten bileran, estatutuak ez ezik zuzendaritza batzordea osatuko duten 7 kideak ere aukeratu zituzten.

Hilabete bakar batean aitzinera pausu ikaragarria eman dute. Elkartea sortzeko lehen kontaktuak hasi eta elkarte berriaren Zuzendaritza Batzordea aukeratu artio, aski denbora llaburra pasatu da. Jendea ere erruz animatu da, eta lehenbiziko bi bileretan bederen 50-60 pertsonak parte hartu dute.

Dendari eta zerbitzu sektoreko profesionalentzat irekia

Momentuz dendari eta zerbitzu sektoreko profesionalak zabaldu diete elkartearen parte hartzeko gonbidapena. Ostatu eta jatetxeek parte hartzen dute Berako eta Doneztebeko elkarteetan, baina Baztangoan, momentuz, aparte uztea pentsatua dute. "Problematika berezia dago Elizondoko ostatu eta diskotekaren artean, eta momentu honetan horrek ez liguke soberra lagunduko" diote.

Dena den, hemendik urte hondarrera merkatarien elkarte berri honek mahai

gainean izanen duen gaietako bat horixe izanen da: elkarte berrira bazkideak biltzea.

Estatutuei dagokionez, Berako eta Doneztebeko merkatarien elkarteak dituztenak erabili dituzte eredu modura. Bi elkarte horien estatutuak irakurri zituzten urriaren 10eko bileran, eta guztien artean eztabaidatu ondotik, Baztango elkartearen estatutuak adostu zituzten. Bertzalde, bazkide egiteko fitxa banatua zuten lehenbiziko bileran, eta kasik 50ek ekarri zituzten paperak beteak bigarren bilerara. Zenbaitzuk "ondoko egun hauetan ekarriko dituztela" zehaztu digute elkarteko ordezkariak.

Elkartearen izena-logoa hautatzea eta eguberrietako kanpaina

Isabel Gonzalez, elkarteko idazkariak zehaztu digunez, hemendik urte hondarrera begira badituzte hainbertze lan esku artean. Lehenik elkarte legeztatzea Nafarroako Gobernuako Industria Departamentuan. "Tramiteak 20 egun inguru behar izaten ditu" zehazten digu Isabelek, "estatutuak erregistratu, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia lortu, eta abar..."

Bertzalde, azaroa akitu baino lehen elkarte honek izanen duen izena eta logotipoa aukeratu nahi dituzte. Horretarako lehiaketa zabaldu dute, eta ira-



Merkatarien Elkarteen sortze-bilerara Baztan osoko 60 denda eta zerbitzu bildu ziren. Zuzendaritza Batzordea osatuko duten 7 kideak ere aukeratu zituzten eta azaroaren bigarren hamabostaldian erabakiko dute elkarteak izanen duen izena eta logotipoa.




Unai Arriaga, presidentea



M^{ra} Luisa Tena, presidente ordea



Isabel Gonzalez, idazkaria



Angel Arraztoa, diruzaina



Javier Pina, batzordekidea



Asun Irigoien, batzordekidea



Neli Yanci, batzordekidea

Urtean 60 euroko kuota

Elkarteko bazkide denak urtean 60 euroko kuota ordaindu beharko du. Hala ere, egin gogo dituzten kanpaina eta akzioak finantzatzeko dirulaguntzat eskatu nahi dituzte. Afera hau oraindik arras lotu gabea duten arren, "Nafarroako Gobernuan edota Baztango udalean saiatuko" direla adierazi dute elkarteko ordezkariak.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordeko karguak bi urterako hautatu badira ere, urtero karguen dauden erdiak berrituko dira. Gisa horretara jarraikortasuna eman nahi zaio arduradunen arteko erreleboari.

DATUAK 2003

Ekonomia Jardueren Sailkapenean 52. atala

JANARI SEKTOREA	26
ARROPA ETA OINETAKOAK	9
DROGERIA, LURRINDEGIA ETA FARMAZIA	8
MOBLEAK ETA ETXeko ARTIKULUAK	10
BERTZE MINORISTA BATZUK	14
Guztira	67

Datuak: Nafarroako Gobernu, Estatistika

Jaimerena
ileapaindegia

GIZONEZKOAK
EMAKUMEZKOAK

ESTETIKA
SOLARIUM-A

Jaimerena

Tel. 948 581 273 - Santiago, 19 - behea - ELIZONDO

OÑASKA
ERRETEGIA

BEREZITASUNAK :
Betiko euskal sukaldaritza
Haragiak eta arraiak brasan

ASTEBURU - JAI EGUNETAN:
Pittike errea
ETXeko POSTREAK

Bagordiko bidea • ELBETE • 948 452 088

ARKUPE
goxotegi • kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393

Sansiñena
garagea

zerbitzu
ofiziala

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

• Agria, Fiat, New Holland traktoreak

zerbitzu
ofiziala

• Erabilitako nekazaritza tresneria

Santiago, 37 • Tfnoa-Faxa: 948 580 406
ELIZONDO

KONGELATUAK:
Albondigak
Urdalezpiko,
oilasko, piperr
eta arraultze kroketak



Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK

Oreln Bera, Lesaka, Etxalar eta Donostebeko
janaridendetan

ONGI PASA FERIAK!

Jaime Urrutia 35 - ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO

Clinica Dental
Irurita - Rubio
ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
INPLANTEAK

Dr. Jose Luis Irurita (Kol. 240)
Dr. Bihotza Rubio (Kol. 241)
odontologia medikuak

Rx. panoramikoa - periodontzia
Kirurgia - endodontzia - profesia

ODONTOPEDIATRIA - PADI
ortopedia maxiliarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713 Donostia 948 450 267



HOTEL
SASKAITZ

M^a Azpilkueta karrika, 10
Tfnoa-Faxa: 948 580 488 - 948 580 615
ELIZONDO
hotelizondo@bailize.net

Pedro
GARMENDIA
Zerbitzu Estazioa

- Gasolina eta Gasoila
- Presio bidezko garbiketa
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta

ongi pasa **feriak!**

ttipi
ttapa

Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia
Gozotegia

Malkorra®

Santiago, 15 - Tel: 948 580 061 - ELIZONDO

SEAT LEON

Meknika - Elektrizitatea - Gasen Aztertzailea
ITVrako prestakuntza - Ordenagailu bidezko
Direkzio zuzenketa



DATUCELAY ELIZONDOKO sarreran
Telefonoa: 948 580 225

SEAT
auto emoción

ttipi-ttapa

948635458

info@ttipi.net

www.ttipi.net

Albaitaritza

Tfnoa.: 948 580 980 www.albaitaritza.com

Albaitari zerbitzua
ALBAIKIDE

Tfnoa.: 902 169 169 www.albaikide.com

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak **Materiala**
Botika **Bildots eta aratzeentzako konexio**
Xaboi eta desinfektatzaileak **Osagarri mineralak**

Tfnoa.: 948 506 169
www.albaitack.com

Albaitack

Akzio konkretuak egin beharko ditu elkarte berriak **bazkide izatea errentagarri dela** sentiarazteko

Izaskun Abrilen iritziz, "kanpora eta barrenera begirako akzioak" beharko dute izan

Bertiz Partzuergo Turistikoa sortu zenetik bere baitan bildu zituen hainbat elkarte, eta horien artean Bertizko merkatarien elkarte. Denboraren joanean, ordea, gehienbat turismoarekin zuzenki zerikusia duten elkarteak asmatu dute Partzuergoaren barrenean dinamika egokia eramaten.

Horrela bada, Bertizko Merkatarien Elkarteak gogoeta saioa egin zuen orain dela urte bat inguru. Gogoeta horren ondorioa izan zen Bertizko elkarteari bukaera ematea eta tokian tokiko errealitate, problematika eta dinamikei hobeiki erantzuteko asmoarekin elkarte berriak sortzea. Geroztik Beran eta Doneztebeko merkatariak elkarte propioak sortu dituzte, Larun Haitzpe eta Doneztebarrak, hurrenez hurren.

Izaskun Abril, Cederna-Garalur garapen agentziako teknikariak hurbiletik ikusi du aipatu berri dugun prozesua. Bere ustez "merkatariak inplikatzeko, lan egiteko eta jarduera zehatzak bultzatzeko errazagoa da hurbiltasunaren aspektua kontuan hartzen bada. Halaxe diote guztiek". Konparazioan, "Bertizko planteamendua sobera zabala eta haundia ikusten zuten merkatariak, eta ez hori bakarrik. Turismo erakunde moduan ikusten zuten batez ere, eta aunitzentzat ez zegoen batere garbi hura ote zen egokiena ote zen edo ez".

Baztango klabeak

"Momentuz saltokiak eta zerbitzu enpresa tikiak erabaki dute elkartzea. Ostalaritza sektorekorik ez dute bil-



Izaskun Abril, Cederna-Garalureko teknikaria

duko elkartean, azken hauek nahiko eskaintza zabala dutelako eta lan-dinamika konkretuak ere".

Cedernatik aholku batzuk emateko prest daudela dio Izaskun Abrilek. "Akzio konkretu batzuk egitearen beharra planteatzen diet nik, bederen bi norabidetan: kanpora begiratzuz bezeroak fidelizatu eta estimulatzeko, eta bertalde, komertzio bakoitzak bere buroari begira, prestakuntza eta kudeaketa ikastaroak. Hori ez bada egiten bazkideek ez diote etekinik ikusiko elkarteari". Prozesu horretan, premia horiek identifikatzea da orain egin beharrekoa. "Cedernatik prest gaude aholkularitza egiteko eta elkarrekin egiten ahal ditugun lanak ikusteko; elkarte osatzeko dirulaguntzak aztertu, proiektuak definitu, paperak prestatu, kalitatea bultzateko lan ildoak, bertze erakundeekin sinergiak aprobeztatu..."



ARKITECTURA

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TLF: 948 581 931

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA



Zurich Aseguruenak • Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskala • Inmobiliaria
Gestoria

Borden salmenta eta etxeen alokairua

Santiago, 15 Tel-Faxa: 948 580 804
ELIZONDO

ZERGALAN 
aholkularitza

Baztanberri plaza, 6 • **ELIZONDO**
Tlfno.: 948 581 300
Faxa: 948 580 648
e-posta: zerga@telefonica.net

**Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala**

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea



Merkataritza eta denbora libreko gunea inguru honetan egingen da.

Baztango Udalak oniritzia eman dio Arraiozko merkataritza guneri

Proiektuaren sustatzaileak, Urtelor SLk, proiektu berria aurkeztu du Ur-Konfederazioak eta Nafarroako Gobernuak eskatua zioten zuzenketekin

J. IRIGOIEN

2005eko urte hasieran Baztango Udaren hasierako onespina erdietsi eta gero, Ur-konfederazioak eta Nafarroako Gobernuak geldiarazi egin zuten Urtelor enpresak aurkeztu zuen proiektua. Hasierako proiektu haren arabera, erreka bazterrean egin gogo zen ezpona arriskutsua izaten ahal zela ebatzi zuten bai Ur-Konfederazioak eta baita Nafarroako Gobernuak ere. Hauen iritziz uholderik gertatuz gero, goitiago, Arraiozko Mardea auzoan, erreka ateratzen ahal zela ikusi zuten eta horregatik, proiektua moldatzeko eskatu zitzaion Urtelor enpresari. Orain, enpresak aurkeztu duen proiektu berriak bi erakunde horien onespina baduela ikusita, EA eta UPNren aldeko botoekin Baztango udalak hasierako onespina eman dio Arraiozko merkataritza guneari.

49.000 m²ko eremuan

Arraioztik Oronoz aldera errepidea eta erreken tartean, Gillermobelaiko zelaian, 48.644 metro koadro hartuko ditu merkataritza guneri berriak. Orain arte landa kalifikazioa zuen eremu horrek, hemendik aitzinera hirugarren sektoreko jarduera izateko birkalifikatu du Baztango Udalak hasiera batez. Merkataritza guneri honetan hainbat zerbitzu daude aurreikusitak: frankizia edo marka ezagun bateko 2.000 metro koadroko supermerkatua (janariak, garbiketa produktuak, drogeria, oihala eta arropak), galeria komertziala, 500 metro koadroko galeria komertziala, 300 m²ko kafetegi-jatetxea, gasolindegia, autoen garbitokia eta 250 autorendako aparkalekuak. Proiektua hainbat fasetan egitea aurreikusita dute. Dena den, errekatik hurbilen dagoen eremuan kokatuko dira

6 Elizondoko FERIAK 2006ko urriaren 27-28an

Arraiozko proiektuari **argi berdea** **ematea kezkagarria** **iruditzen zaio** Nafarroako Merkataritza Federazioari

Federazioak dioenez "Elizondotik aparte egitean, potentzialtasuna kenduko zaio Elizondok beharrezkoa duen garapen komertzialari"



Nafarroako Merkataritza Federazioarentzat (FNC) Arraiozen merkataritza eta aisialdi zentroa egitea "akats larria" da, bertzeak bertze, "merkataritza eta zerbitzu eskaintzaren edozein planifikazio-oinarriren kontrakoa delako". Gisa honetako proiektu bat Elizondotik aparte egiten bada, "Elizondoko dinamika komertzialarentzat kaltegarria" izanen da, Federazioaren iritziz.

Holako proiektu batek "toki egokian kokatzeak berebiziko garrantzia" duela uste du Federazioak, eta aspektu hori azpimarratzeko, jendaurreko lehenbiziko fasean jakinaren gainean jarri zuen Baztango Udala Merkataritza Federazioak. Abian jarri nahi den garapen proiektua edozein dela ere, Federazioaren aburuz "kokapen egokia emateak eragin zuzena du gainerako sektore komertzialean".

Udalerriko planifikazio komertziala zuzentzea eta bere garapenaren oreka zaintzea udalen zeregina dela pentsatzen du Federazioak. Hortaz, Arraiozen horrelako proiektua abian jartzeak "murritzitu egingen luke" Elizondok, merkataritza gune sendotu moduan, "garatzeko izanen lukeen potentzialtasuna".

Horiek horrela, "proiektua errektifikatzeko bere esku dituen ahalegin guztiak egingen ditu" Merkataritza Federazioak. Izan ere, "paisaia eta ingurumena kalteaz gain, proiektuan aukezten diren metro koadroen arabera Udalez Gaindikotik Plan Sektoriala (PSIS) ere gaitu beharko luke", Federazioaren iritziz. Argibide gehiago: <<http://www.fcomerciosn.com>>

haurrendako parkea, joku eta internet aretoa eta berdegune zabala. Beharbada, taberna-pub bat egitea geldituko zen hurrengo fase baterako. Orain Urtelorrak SLk aurkeztu duen proiektu berriaren arabera, supermerkatua egon den eraikina lurretik altxatua egingen da, pilare edo zutabeen gainean. Hala, sekulan erreka aterako baliatze, uholdea etxe azpitik pasatuko litzateke supermerkatua eta galeria komertzialak kaltetu gabe. Baztango udalak hasierako onespina ematearekin batera, proiektu honetan baimentzen diren erabilerak ere zehaztu zituen joan den abuztuaren 25ean egindako batzarrean; industria garbia, biltegiak, aparkalekuak, tailerrak eta bizitegiak (zaindari eta mantenu arituko diren zentzuetan). Era berean, barneko berdegune, aparkaleku eta azpiegituren mantenua enpresaren kargu izanen da.

Bideragarritasun planak **12.000 bezero aurreikusten ditu**

Urtelorrak enpresak aurkeztutako bideragarritasun planean 12.000 pertsonako bezero multzoa aurreikusten da. Horietatik 7.743 Baztangoak izanen ziren, 684 Bertizaranakoak eta 3.948 Malerrekaakoak. Lehen urtean, bazarrik merkataritza gunea kontuan hartuta, negozio-bolumena 2,78 milioi eurokoa litzateke eta, 5 urteren buruan negozioa 9,6 milioi eurotaraino ailegatzea espero dute nagusiek. Aurreikuspenen arabera 40 lanpostu sortuko lirateke, galeria komertzialean irekiko diren 7 dendetan sor litezkeenak kontatu gabe.

Azken finean, inguru honetatik Iruña eta Irun aldeko merkataritza gune handietara gaur egun dagoen kapital-ihesa murritzitu nahi lukete.

Elizondoko **FERIAK2006**ko urriaren 27-28an **7**

ELIZETXE



material
elektrikoak

Tel: 948 581 261 - Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) - ELIZONDO

ferreteria Quevedo

Santiago 31 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 58 02 34




haragia
xehatzeko
makinak

Belardenda eta Dietetika

Natura Etxea

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak



Santiago, 47
☎ 948 580 203
ELIZONDO

POTTOKI

ZATOZ GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!!

ZERO ALAKA

Pastanberri Plaza, 5 - behea
51700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfn.: 660 590 605
pottoki@terra.es

Astelehenetik larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

- SILETAK
- SEHASKAK
- KOTERAKO ALAKAK
- LEHENAGOKO JOSTAILUAK
- EDIPEDOI ETA KOSKOR-BAPESAK
- KOTXEENAKO ZAKUAK
- HAUR-ALAKI ALTUAK
- OPARIK
- JAIOTZE TERRENOAK

Probatu argiaren atsegina gizon eta emakumea gozatu zure larruazalaren leuntasunaz

Beatriz Estetika Zentruko espezialistaren eskutik eta Depitotal Radical Laser Systemek garatu duen teknologiari esker, honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

FOTODEPILAZIOA ETA LASER-DEPILAZIOA

Lehenbiziko saiortik lortzen da ilea kentzea eta oso ziurra, azkarra eta ondorioz gabea da.

FOTO-GAZTETZEA

Zimurak eta aurpegiko adierazpen-marrak hobetzen dira, larru azalaren elastikotasuna handituz, gorritasuna hobetuz eta poroen neurria txikituz.

FOTOTERAPIA-AKNE

Saio gutxitan erabat kentzen da aknea, modu naturalean.

Depitotal

Beatriz

Zatoz eta gure Zentruak eskaintzen dituen zerbitzuak ikusiko dituzu.

URRATIK URTARRILERA
ESKAINITZA BEREZIA!!

BEATRIZ ESTETIKA ZENTRUA
Estetika-metodoriak aurreratuenen abangoardian eta, emaitzak frogatzeko, 17 urteko esperientzia.

Orain, **diagnosi-informatikoa** doan jakiteko: nolako den zure larruazala eta ilea? zein tratamendu behar dituzun?, zenbat saio? eta zenbat kostatuko zen?

Santiago, 53 • ELIZONDO
Tfn./Fax: 948 580 283

AROZ - BERRI

31730 PLURITA (NA)
Teln. (34) 948 581 031 / (34) 948 580 258
Fax. (34) 948 452 102

LEITZA

18/98 auziaren aurka azaldu ziren udalean Aralar, EA eta Larrain Herri Plataforma

Jose Juan Larralde izanen da UPNko zinegotzi berria, Daniel Mugikaren ordezkari

Joseba URKIOLA

Irailaren 29an Udaletxean burututako osoko batzarrean Aralar, EA eta Larrain herri plataformak 18/98 auziaren aurkako mozioa onartu zuten. Aipatutako hitzarmen honen lehen aurrerapausuak irailaren erdialdera eman baziren ere, publikoki benetakako onespenez irailaren 29an burututako osoko bilkuran eman zitzaion. Honi lotuta esan, Udaletxean gertatutakoa islatzeko hiru alderdien ordezkariak eta bestelako herritar batzuek ere, herriko plazan burututako agerraldi publiko batean bildu zirela.

UPNko zinegotziek, berriz, batzarrean aztertutako beharrek hiruzpalau puntu Larrainek aurkeztutakoak zirela eta, bertan parte ez hartzea erabaki zuten. Aipatzekoa da Daniel Mugika UPNko zinegotziak, kargua utzi duela, «*arrazoi pertsonal eta laneakoengatik*». Zerrenda hurrengoak, Jose



ARTXIBOKOA

Unai Zabaleta, Karrape irratiako esataria, lanean.

Juan Larralde beteko du zinegotzu kargua.

Karrape Irratiak denboraldi berria prest

Iraila etortzearekin batera leku gehienetan ikasturte berriari hasiera eman ohi zaio. Karrape Irratiak ere ekin dio 2006-2007 urteko ikasturte berriari. Unai

Zabaleta eta Arantxa Iparragirre esatariak gidari dituen irrati lokalak, hiru hilabeteko saio freskagarri eta berezituak ostean, urriaren 2an ekin zion programazio berriari. Aurtengoan ere aurreko denboraldietan gertatu moduan, egun bakoitzak bere gaitegi eta protagonista bereziak izango ditu.

Denek nola denek, egunero-egunero 107.8 F.M-an barneratzen diren entzuleei une entregigarri eta politak eskaintzea izango dute helburu nagusi.

Aurrera Dantza Taldea oporretara

Aurrera Dantza Taldea, urriaren 12an Le-

kunberrin Pilarika egunez bertako jaiei dagoen ekitaldian parte hartu ondoren oporretara joango da. Aurtengo urtea beste urteekin alderatuaz, Aurrera Dantza Taldeko partaideek urte berezi eta gogoangarria izan dute. Urtero moduan San Tiburtzio eguneko ezpatadantza sonatua eta pesta bigarreneko arratsaldea alaitzeaz gain, bestelako leku batzuetara joateko aukera izan baitute. Horien artean, orain hilabete eskas Txekia herrialdera egindako bidaiak litzateke aipagarriena.

Dena den hilabete askotako lanaldi gogorraren ostean, orain merxetako opor batzuek hartzeko garaia iritsi zaie. Dantza Taldeko ardura-dunetako batek esan digunaren arabera, Gabon jaien ondoren hasiko dira berriro ere hurrengo pestetako eta bestelako jardunaldietarako saioak prestatzen.

txokoberri
Aluminioan espezializatuak
• Aroztegi Metalikoa (lelhoak, ateak, barandak,....)
• Parket
Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 881 924

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucésba msn.com

Ark_b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Gatzal 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udai-aholkularitza

BAZTAN

Helduen Unibertsitatea abiatu da Elizondoko Lanbide Eskolan

Bidelagun Elkartek eta Francisco Yndurain Unibertsitateak prestatua

Maite Oteiza

Bidelagun Elkartek eta Francisco Yndurain helduentzako unibertsitateak ikasturte hone-tarako kurtsoak antolatu ditu Elizondon. Ikastaroak 55 urte baino gehiagokoei zuzenduak dira, baina lekuen %30a gazteagoendako altxatikoa da, helduen eta gazteen arteko hartueman-na sendotu asmoz.

Ikasturtea urriaren 16ean hasi eta ekainean akituko da, bi atal lauhilekoak izanez. Irakasleak baztandarrak dira eta klaseak lanbide eskolan emanen dira, astean hiru egunez: 2 ordukoak, astearte, asteazken eta ortzegun arratsaldetan. Guzira 7 ikasgai eskainiko dituzte: Asteartean, 16:30etik 17:20era, Salvador Gutierrezek Idatzizko Komunikazioa izeneko ikasgaia emanen du. Egun berean, irakasle berak Poesia eta Musika izanen du solasgai 17:30etik 18:30era. Asteazkenetan, Kantuak



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Estazio meteorologiko berria Iruritako Loizu inguruan
Urteetan komunikabideetan, Baztan aldeko tenperaturak Lekarozen hartuak ziren. Bolada bat generaman datu horiek aditu gabe baina fite ere izanen ditugu. Dagoeneko, Iruritan, Loizu hiltegiaren ondoan, garbiketa lanak hasia dira, bertan estazio meteorologiko berria kokatzeko.

Gerra Zibilean edo Baztango Flora aztertze-ko aukera izanen da 17:30etik 18:20era eta 18:30etik 19:20era. Basilio de los Santos elizondarrak eskainiko du lehen ikastaroa eta Almandozko Navidad Lorenzok bertzea. Orte-

gunetan, bezperako ordutegi beretan, Angel Garciak gaur egungo idazle nafarrei buruzko ikastaroa emanen du eta Martin Garde gartzain-darra XVII. eta XVIII. mendeetako Baztango emigrazioa eta Jaurerietaz arituko da. Ikas-

taro horiez gain, bertaratu gabeko Boluntariotzako Formakuntza izeneko bertze ikasgaia emanen du Patxi Goñik.

Nolanahi ere informazio gehiago Bidela-gunen bulegoan edota 900778877 telefonoan jasoko duzue.

FLASH

Literatura sormen lantegia

Narrazio gintzan sakondu eta literaturan sormena lantzeko azaroatik 7tik otsailaren 6ra literatura sormen lantegia egingen da Arizkunenean. Bi orduko hamabi saio egingen dira asteartean 18:30etik 20:30era, Euskal Idazkeen Elkarteko Aritz Gorrotxategiren eskutik. Izen ematea azaroaren 2 artio egingen ahal da, goizez Balleko Etxean Euskara Zerbitzuan (948 580006) eta arratsaldean herri liburutegian (948 581204).

Beartzungo errepidea moldatuko da

Martxoan izandako euriteen eraginez, Beartzungo errepidean kalte-tutako zati bat moldatuko du Obras y Reparación de Terrenos, SL enpresak. 60.000 euroko inbertsioa egingen du Nafarroako Gobernuak Herrilan Departamentuak, 2,5etik 4. kilometrorara bitarteko zatia konpontzeko.

Kirikoketa Besta larunbatean

Urriaren 21ean egingen da Kirikoketa besta goizeko 10:30etik aitzinera Arizkungo Gamioxa-rraan. Hameketakoa eta sagardo berriaren das-taketa egingen dira, kirikoketa doinuaren artean.

Oronozko kontsultan ordua eskatu behar da

Urriaren 23tik aitzinera, Oronoz-Mugairiko kontsultan ordua eskatu behar da, medikuaren-dako nahiz erizainaren-dako. Horretarako 948 592208 telefonora deitu behar da 8:00etatik 11:30era.

ANTXITON
Trinketa

Jatetxea • Os
Hotela • Trinketa

Menu Boroz

Tel: 948 581
948 581

Pierresenea
OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ - MUGAIRI

egoi bardot obregoza arkitektoa

679849789 elizondo • braulio iarte 33, 1ºD • 31700
948250371 Iruñea • irabeko monastegia 62, 4ºC • 31011

URDAZUBI

Artelanen erakusketa ireki da monastegiaren klaustroan



Bi margolari, bi argazkilaria eta bi zizelkariren lanak ikusgai daude urriaren 12tik azaroaren 26ra

Fanny eta Aitor

Urriaren 12tik azaroaren 26a bitartean, egunero 13:00etatik 19:00etara, bertze arte erakusketa bat izanen monastegiaren klaustroan, oraingoan ere Otxondo-Evènements-ek antolatua.

Udan egin zen Esteban de Lasen-en obren erakusketak izugarriko arrakasta izan zuen, bisitari kopuruak argi eta garbi erakusten duen moduan. Horregatik Marc eta Martine Etcheverry berriz ere erakusketa berri honi ekin egin diote, dudarik gabeko udazkenak Euskal Herrian duen argitasun guziz bereziak finkatu hitzordua ez hutsegiteagatik.

Sei artisten obrak erakutsiko dira denboraldi huntan, Gabrielle Duplantier eta Xabier Landa argazkilaria, Patxi Aranoa eta Irkus Robles margolaria, eta Thomas Fischer eta Gilles Plantade zizelkaria. Bi akuarelisten obrak ere ikusi ahal izango dira, Roger Bravard eta Antonio Villegasenak. Beraz topaketa ezin hobe dugu herrian arte zaleentzat.

UT M ILEGU
M L G U



Murrztu 2 n h
hl uttn



rmn 3 h rn
lhn ut rn

Vhoy!
Crédito en vente

ut M l u M l u r r s r z u r l l u m h k m l u t n
l n n t l h r k n s t n t z m u z n u z u h n m n
z z u n u r n z

* n t s z n z n u n u r s z h l k k u t n 2 n h k
u r r z k n z.

* G -m l m u t u r t u z 3 h r n k r z n
n l h n k u t r k r n u z.

E t h r u z t h n k m n z z u n r n k t - u n
u k r t z k m u r k n.

www.vhoy.com

Eun c u r h t
t u c h l u n

NAIARRAK
RUR L KUTXA

SARA

Erreferendumaren aldeko sinadurak bilduko dira urriaren 28an Herriko Etxean

Euskal eta Biarnesen bi departamendu sortzeko erreferenduma litzateke

Laetitia eta Sandrine

Euskal eta Biarnes departamenduak sortzeko buruzko erreferenduma antolatu ahal izateko, 46.000 sinadura bildu behar dira. Demokraziaren oinarria den kontsultazio hori egia bihurtzeko, herriar guzien inplikazioa beharrezkoa da. Erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko, Sarako Herriko Etxea idekia izanen da urriaren 28an, goizeko 9etatik arratsaldeko 13ak arte.

Demokrazia eta kontsultazioaren aldekoa

bazara, ez utzi bertzen esku, bakoitzaren sinadura inportantzia handia izanen du.

70 jokolari eskubaloian

Aurten Sarako Ur-txintxak, eskubaloit taldeak, 70 jokolari kon-datzen ditu. Orotara 6 ekipa badira denak neskak. Haundienak beren lehiaketa urriaren 1ean hasi dute. Ondoko partida urriaren 22an jokatuko da: Boucau Tarnosen aurka izanen da Saran.

Horren aparte lehen



UTZITAKO ARGAZKIA

Sarako herriak Ataun errezibituko du urriaren 21ean
Urriaren 21ean larunbatarekin Sarako herriak Ataun herria errezibituko du. Egunean zehar animazio desberdinak antolatuak izanen dira: 11etan, kafe edatea Herriko Etxeko azpian, segitzeko errebote partida eta ezkila dorrearen bisitatzea. Arratsaldeko 2etan, bazkaria lur Berri gelan. Argazkin, joan den urtean saratarrek Ataunera egindako bisita ageri da.

aldikotz aurten, "Hand Loisir" ekipa bat muntatu dute. Hor aurkitzen ahal dira lehenagoko jokolariak bai eta ere jokolari gazteen amak.

Errugbia

Urriaren lehenean Labatuten aurka erreserbak irabazi zuen, baina lehenak galdu zuen puntu batez, 22-21.

Urriaren 8an, Tartas-en aurka jokatu zuten

Landesetan, erreserbak galdu du 27-17 eta lehenak berdinketa egin zuen 10-10.

Hurrengo partida urriaren 22an iraganen da, Pouillon taldearen aurka Sarako errugbi zelaiaren.

Dantza taldean 80 dantzari

Zazpiak Bat, dantza taldearen izen emaitak iragan dira irailaren

30ean, arratsaldean. Urriaren 6an kurtxoak hasi dira. Urte guziz bezala taldeak 80 bat dantzari kontatzen ditu.

Salsa dantza kurtxoak

Aurten Zazpiak Bat dantza taldeak, Salsa kurtxoak antolatu ditu. Kurtxoak irailaren 22an hasi dira, arrakasta handi batekin, 50 pertsonekin.

HERRIKO ETXEO
EDENTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maïxan eta Véronique
SARA



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



SEAT
VW
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505
(0034) 948 635458

MARTIKO
Ahatekietan adituak eta arituak
Martiko Poi Zelaia, s/n.
31780 Bera, Nafarroa.
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com
Martikorekin zu zeu sukaldari.

ZUGARRAMURDI

Elizako ezkilen berritzea ordaintzeko herritarren laguntza eskatu dute

Margari eta Koro

Elizako dorrean jarri diren hiru ezkil berrituen kontuak etxeetara igorri dituzte. Gastu guztia 18.065 eurokoa izan da: 14.000 euro ezkilen konpontzea eta gainerakoa elektrizitate, harginak, kantera, zurgindegi eta arotzen lanak izan dira.

Nahiz eta diru hunen zati haundiena Zuga-

ramurdiko elizak pagatuko duen, hala ere herritarrei beren borondatearen araberako laguntza eskatzen zaie. Ondotik zenbat diru bildu den ikusita, bertze bileran egin nahi dira: alde batetik burdinezko sare batez inguratu ezkilak, eta bertzetik elizako dorrrera doaieen eskailera konpondu.



ARGAZKIA: KORO

Atxuria mendi taldearen urriko ateraldia Aizkorrrira

Atxuria Mendi Taldearen urriko ibilaldia Aitzkorrrira izan da, eta harat gan ziren 12 lagunak argazkian ageri dira San Adrian lezeko parean. Gainera ibilaldi emankorra suertatu zitzaie, bidean onddoak harrapatu baitzituzten. Heldu den hilabetean Mendaurrea joanen dira.

A MANO DENDAK SAREA



A Mano Dendak sarea 1998. urtean sortu zen. Egun 14 establezimenduk osatzen dute, eta laster Zierdiko bat sartuko da bertan (egokitzapen-lanak egiten ari da).

Honako hauek dira **A Mano Dendak** sarean sartzeko establezimenduek bete behar dituzten baldintzak:

- Nafarroako landa-ingurune batean egotea.
- Establezimendua dagoen herriak edota eskualdeak etorkirun ona izatea turismoaren aldetik.
- Herria 100 eta 3.000 biztanle bitartekoa izatea.
- Lokalak, gutxienez ere, 45 m² edukitzea.

Turistak eta dendak herritarrek dituzte kontuan **A Mano Dendak** sareko establezimenduek. Alde batetik, egunero eguneko produktuek hornitzen dituzte bertako herritarrek, erosketak egiteko herritik atera behar ez daitezkeen. Eta bestetik, turistak beharrei erantzuna ematen diete, behar dituzten produktuak eskainiz (jooigarriak, argazkiak egiteko materiala, etab.) eta bertako eta inguruko informazioa emanez, folleto eta gidak bitartez.

A Mano Dendak sareko establezimenduek landa inguruetako denda gehienek balio ekonomikoki handiagoak ateratzen dituzte.

CEDERNA-GARALURek, Garapen Agentzien eta **CEIN S.A.**ren bitartez, jarduera hazi aurretik eta ondoren eskaintzen die laguntza sustatzaileak.

Sarean sartu ahal izateko, araztean aipatu ditugun baldintzak betetzen direla egiaztatzeaz gain, ikerketa bat egiten da. Ikerketa horren bitartez establezimendua jarri behar den herrian etorkirun ote duen aztertzen da. Zerbitzu hau doanekoa da

pertsonek ekintzaileentzat zein merkatarientzat.

Behin establezimendua abian jarri ondoren, **CEIN S.A.**k honako laguntza hauek eskaintzen ditu:

1. Etengabea aholkularitza.
2. Prestakuntza.
3. Jarduera ekonomikoaren jarraipena.
4. Sektoreari buruzko informazioa eta merkatarien interesak izan daitezkeena bidaltzea.
5. Ikerketa egitea.
6. Hornitzaileekin harremanetaz arduratzea.
7. **Comercios a Mano** sareko beste denda batzuekiko trukeketak eta lankidetzak.
8. Dendetan hasitako den turismoari buruzko informazioa kudeatzea.
9. Sareko guztiek erabiltzen duten materialaren kudeaketa (poltsak, paperak,...).
10. Merkataritza kampaniak diseinatzea.
11. Laguntza ekonomikoa.

A Mano Dendak sareak bi motatako jenderi laguntzeko pentsatua dago: batetik, gure eskualdean denda bat ireki nahi duten pertsonak eta, bestetik, establezimenduen irudia aldatu nahi duten eta sare bateko kide izateak ematen dituen abantailak baliatu nahi diren merkatariek.

Informazio gehiago:
www.comerciosamano.com
T. 948 38 25 60

SENPERE

Football taldea sortzekotan da Jean Michel Larquéren eta SPUC elkartearen inguruan

Piarres Larzabal kolegioa inauguratu berri dute Azkainen

Franck DOLOSOR

2006ko urriaren 11 egun zinez garrantzitsua izanen da herrian football-a maite dutenentzat. Egun hortan, sortzekotan den zangobaloi taldearen lehen bilkura egin da. 1995 eta 2001 urte artean sortu diren haurrerizuzentzen zaie elkarte berria. Taldea SPUC herriko kirol batasunaren baitan sartu da. SPUCa 1968an sortu zen pilotarien eta errugbizaleen inguruan. Urteetan, haundituz gan da eta kirol desberdinetarat hedatu da, saski baloia, orain desagertua dena, nesken esku baloia, gero mutilen esku baloia eta azkenik kanoa. Orain arte, football zaleek Donibane Lohizuneratedo



ARTXIBOKOA
Errugbian edo pilotan ez ezik football-ean ere aritzeko aukera izanen dute Senpereko gazteek, SPUC elkartearen baitan.

Ezpeletarat gan behar zuten. Orain, herrian berean jokatzeko ahalko dute. Jean Michel Larquéren inguruan sortu da talde berria. Berriki, Biarnoko goi mailako jokalaririk ohia eta kirol kazetari ospetsua herrirat etorri da bizitzera.

Nola ez, pilotarien eta errugbilarien herrian zen

hutsa bete nahi izan du Bizanoseko semeak.

Piarres Larzabal kolegioa Azkainen

Piarres Larzabal Azkaingo euskaltzale zena pozik egon dilaite. Bere izena daraman kolegioa inauguratu dute berriki Ziburun. Seas-

